

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 125/2019 Erabakia, otsailaren 26koa. Arabako Foru Aldundiko langileen ordainsari oinarritzako eta osagarriak ehuneko 2,25 igotzea, 2018koen aldean

Ordainsariei dagokienez hauexek dira funtzio publikoan indarrean dagoen lege araubidea arautzen dutenak: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, enplegatu publikoaren oinarritzako estatutuaren testu bategina onartzen duena; 6/1989 Legea, euskal funtzio publikoarena; haiek garatzen dituzten hainbat arau eta, bereziki, uztailearen 30eko 207/1990 Dekretua, euskal administrazio publikoetako funtzionarioen ordainsariena.

Arau horiekin bat etorritik, oinarritzako ordainsarien (soldata, hiru urtekoak eta aparteko ordainsariak) zenbatekoa Estatuko aurrekontu orokorren legeak zehazten ditu, destino-osagarriaren zenbatekoa Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen legeak, eta berariazko osagarria eta ordainsari osagarriak Euskadiko administrazio publikoek.

Abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege Dekretuaren bidez, sektore publikoaren eremuko ordainsarien arloan presako neurriak onetsi ziren.

Aipatutako Errege Lege Dekretuak adierazten du zioen azalpenean 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorren luzapen automatikoak, Konstituzioaren 134.4 artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, berarekin ekarriko lukeela sektore publikoaren zerbitzuan dauden langileen ordainsariak ezin igo izatea 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta honakoa ezartzen du 3. artikuluko bi apartatuan:

“2019an, sektore publikoan lanean ari direnen lansariak ezin izango dira 2018ko abenduaren 31n indarrean zirenak baino ehuneko 2,25 baino gehiago gehitu. Lansari horiek homogeneotasunaren arabera kalkulatu dira erkaketaren bi aldietarako, hala langileei nola haien antzinatekari dagokienez.”

Ordainsarien eta luzapenari loturiko bestelako alderdien gaineko 2019ko ekitaldirako premiazko neurriak buruzko otsailaren 14ko 2/2019 Legeak honakoa ezartzen du:

2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien aldean ehuneko 2,25 gehituko dira Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateen zerbitzura dauden eta lan-kontratukoak ez diren langileen urteko ordainsari osoak, baita lehendakariaren, sailburuen, goi-kargudunen eta berdinetatikoen, behin-behineko langileen eta zuzendaritzako langileen ordainsariak ere.

Aipatutako legearen azken xedapenetako lehenengoan honakoa ezartzen da:

“Eusko Jaurlaritzari baimena ematen zaio lege hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.”

Aipatutako baimenari esker ulertzen da Gobernu Kontseiluak euskal funtzio publikoaren uztailearen 6ko 6/1989 Legearen 79.1 a) artikuluan arautzen den destino-osagarria eguneratzea, ehuneko 2,25 igota 2018koaren aldean.

Honakoa xedatzen du Arabako Lurralde Historikoko 2018ko aurrekontuen luzapena 2019ko ekitaldian aplikatzeko irizpideak ezartzen dituen Foru Gobernu Kontseiluaren 71/2018 Foru Dekretuak 7. artikuluan:

“Langileen kudeaketaren arloan, indarrean jarraituko dute, aplikagarriak diren heinean, Arabako Lurralde Historikoaren 2018ko ekitaldiko aurrekontua gauzatzeko abenduaren 22ko 21/2017 Foru Arauak V. tituluan jasotako aurreikuspenak.”

Foru Arau horren 25.1 artikulua, halaber, hau xedatzen du:

“Arabako Foru Aldundiko, foru erakunde autonomoetako eta foru sozietate publikoetako eta foru fundazioetako langile funtzionarioen eta lan kontratudun langileen 2018rako ordainsari osoak gehitu egingo dira Foru Arau honetan ezarritakoarekin bat, 2017ko abenduaren 31n indarrean zirenen aldean. Ordainsari horiek homogeneotasunez kalkulatu dira erkaketaren bi aldietarako, hala langileei nola haien antzinasunari dagokienez, eta, betiere, Estatuaren oinarritzko legedian ezarritako mugak gainditu gabe.”

Aurrekontu zuzkidura nahikoa dagoenez gero, bidezkoa da Arabako Foru Aldundiko funtzionarioen ordainsariak ehuneko 2,25 igotzea, 2018koen aldean.

Gauzatu da langileen ordezkarietako negoziazioa.

Arabako Lurralde Historikoko aurrekontua gauzatzeari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritik, aztertu da Kontuhartzailatza eta Kontrol Zerbitzuak eman duen aurreizuneko fiskalizazioaren aldeko 159/2019 zenbakiko txostena.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta bat etorritik ondoren aipatzen diren foru dekretuek ezarritakoekin: Diputatu Nagusiaren uztailaren 132/2015 3 Foru Dekretua, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehazten dituen, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretua, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezartzen dituen, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretua, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duena, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiko langileen ordainsari oinarritzko eta osagarriak ehuneko 2,25 igotzea, 2018koen aldean.

Bigarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzi Errekurtsioetarako Epaitegiaren aurrean, edo bestela, hilabeteko epean, berraztertze errekurtsua, ebazpena eman duen erakundearen beraren aurrean; hori guztia administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikuluan -Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123. artikuluaekin loturik- aurreikusitakoaren arabera.

Gasteiz, 2018ko otsailaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Funtzio Publikoko zuzendaria

ADOLFO LANDER VERA